

4. EMAKUMEEN LANA MEATZETAN (13 ARGAZKIA)

Kasu honetan ere, ze ezaugarri dituzte argazkian agertzen diren pertsonak (adina, jaskera, sexua etb.). Zer egiten ari dira? Ezberdintasunik ikusten al duzu aurreko argazkiekiko?

“Koltanaren Boomarekin” familia nekazari askok landan lan egiteari utzi diote artisau meatzaritzak erakarritara. Horrek ondorio esanguratsuak izan ditu komunitate horietako emakumeen bizitzan. Lehenik, artisau meatzaritzan harrobietan emakumeen lana debekatu egiten dute kasu askotan, bai aurreiritzi matxistengatik, baita araudien interpretazio interesatuegatik.

Lan handiagoa egiten dute, ordea, minerala garbitzeako, prozesatzeko eta garraiatzeko prozesuetan; harriak birrintzen dituzte, gertuko erreketan garbitzen dituzte atal baliotsuak lohitasunetik bereizteko, zakuratu egiten dituzte, eta zakuak ondoko herrietara garraiatzen dituzte. Mineral garbitokietan substantzia kimikoak erabiltzeak ingurumena kutsatzeaz gain, kalte larriak eragiten ditu osasunean. Bestalde, garraio lanak arriskutsuak ere badira.

Bigarrenik, dauden baliabide urriekin eskoletan mutilei lehentasuna ematen zaie eta errefuxiatu esparruan bizi diren neska askok ezkontza goiztiarrak onartzera bultzatuta ikusten dute euren burua, edo prostituituak izaten dira. Horretaz gain, emakumeen ahotsa ez da kontutan hartu meatzaritza ziuhtagirien prozesuan, eta hori habian jarri zenetik emakumeak garapen integraleko plan bat eskatzen ari dira, emakumeen interesak eta beharrak ordezkatzeko eremua izango duena.



4. EMAKUMEEN LANA MEATZETAN (13 ARGAZKIA)

- **Bideoa:** “Mujeres desplazadas” (zatia) (Iturria: ALBOAN) [Ikusi](#).
Bideoa osorik eskuratzeko: [Ikusi](#)



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa

-en proiektu bat



TECNOLOGÍA
LIBRE DE
CONFLICTO

www.tecnologialibredeconflicto.org

Lortzeagatik

Laguntzailea:



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN